



DICIREG PRESTAKUNTZA BARRUTI JUDIZIALETAN

Eusko Jaurlaritzako DICIREGeko arduradunarekin harremanetan jarrita, honako hau jakinarazten digu:

- Bake-epaitegietako langileek prestakuntza jaso dezakete beren barruti judizialean edo eskatzen duten edozein barruti judizialean. Hau da, adibidez, Bilbon bizi bada, baina Durangon lan egiten badu, Bilbon jaso dezake prestakuntza.
- Ezarpen bat dagoen bakoitzean prestatzaileak daude barruti judizial horretan, orain Durangon daude, zazpi egunez (egun horietako bat Zornotzan eta bestea Ermuan). Amurrión 4 egun egongo dira eta ondoren Getxora joango dira.
- Bake-epaitegietako langile horiek txandaka ibil daitezke, egunero bat joan dadin prestakuntzara.
- Sailak garraio-gastuak ordaintzen ditu, betiere garraio publikoa bada.
- Prestakuntza bi egun osokoa izango da, eta erregistro zibileko atal guztietatik igaroko dira.
- Sartu berriak diren edo baja-egoeretatik datozen langileei barruti judizialeetatik pasatzeko aukera emango zaie, inskripzioak bertan nola egiten diren ikus dezaten.